

@@@IRAGARKIA, 91/11 prozedura laburtuan administrazio-espedita bidali eta hirugarren interesdunak epatzeko dena.@@@

Interesa duen orori honako hau jakinarazten zaio: Euskadiko Irakaskuntzako Langileen Sindikatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu du, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegian, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko azaroaren 16ko Aginduaren kontra. Aipatu aginduaren bidez, argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko zenbait kidegotako irakasle funtzionarioen lekualdatze-lehiaketarako deialdia; kidego horiek honako hauek dira: Bigarren Hezkuntzako katedratiko eta irakasleak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako katedratiko eta irakasleak, Musika eta Arte Eszenikoetako katedratiko eta irakasleak, Arte Plastikoetako eta Diseinuko katedratiko eta irakasleak, eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoak. Errekurtso hori aipatutako epaitegian bideratu da, 91/11 prozedura laburtuan.

Beraz, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1995 Legearen 49. artikuluan xedatutakoa betez, interesdun guztiak epatzen dira, eta ohartarazten zaie bederatzi egun dituztela, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita, aipatu prozedura judizialean agertzeko eta pertsonatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 6a.

Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendaria,
ANA ISABEL CARO MUÑOZ.